



OSTIRALA, 2025eko ABENDUAREN 12a

Merkataritza oarsoaldean



Laurak Bat

PROBIAKO MERKATARI, OSTALARI ETA ZERBITZU ELKARTEA



LEZOKOAK

Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte



itturri

Oiartzungo Merkatarien Elkarte

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Zure txanda

**Oarsoaldeko lau herrietako
establezimenduak prest
dira herritarrak jasotzeko,
kalitatearekin, hurbiltasunetik,
eta eskaintza zabalarekin • 17-28**



ERRENKOALDE

www.errenkoalde.org/eu

Beheko Kalea, 2. 20100, Errenteria

Tel.: 943 51 45 53 / 687 34 31 80

errenkoalde@errenkoalde.org



LEZOKOAK

Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte


LEZOKOAK

lezokoak.eus

Lope de Isasti Plaza 2. 20100, Lezo

Tel.: 607 83 82 44

facturas.lezokoak@gmail.com



itturri

Oiartzungo Merkatarien Elkarte

ITTURRI

www.nikoiartzunen.eus

Santusene kalea, 5 behe. 20180, Oiartzun

Tel.: 943 49 19 98 / 618 18 80 09

info@nikoiartzunen.eus



Laurak Bat

PASAIKO MERKATARI, OSTALARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

LAURAK BAT

www.laurakbat.eus

Trintxerpeko Azoka, 2. solairua. 20110, Pasaia

Tel.: 685 75 57 86

laurakbat@laurakbat.com





Tokiko establezimenduak, hurbil eta prest. Imanol Saiz Gomez de Segura

Eguberrietan kontsumoak gora egiten du. Saltokietan, ostalaritza guneeetan, edo zerbitzu establezimenduetan herritarren emaria hazten da. Abenduaren hasieratik (azken urteetan lehenagotik) jendeak Eguberriei begirakoak ditu gogoan: opariak, bazkari edo afarietarako elikagaiak, urtean zehar gauzatu ezin izan den *kapritxo* hori egikaritzea... Horieta-rako aparteko laguntza dute hala nahi dutenek: herrietako establezimenduak. Dendak, ostalaritza gunek, eta zerbitzu negoziok.

Nabaria da kontsumorako ohiturak aldatu egin direla. Merkataritza gune

Herritarrek txanda hartzeko unea iritsi da

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

handiak, Interneteko eskaintza amaiezina, lanagatik edo edozer gauzogatik herrietako saltokiak zabalik diren birtartean horietara joateko ezintasuna... Hori guztia ez da berria. Desleiala izan daitekeen konpetentzia horren zurrumbiloan urteak daramate tokiko establezimendu txikiek, eta handi-handi direnen aurrean, egoerara egokitzeko urrats oso esanguratsuak egiten ari dira, betiere berezko duten izaerari eutsiz: hurbiltasuna, kalitatea, tratua pertsonalizatua, eta prezio geroz eta lehiakorragoak. Horietan herritarrek txanda hartzeko unea iritsi da.

Oarsoaldeko lau herrietako denda, ostalaritza gune eta zerbitzu establezimendu asko eta asko tokian tokiko elkarrean bazkide dira. Laurak Bat da Paisaiakoa, Errenkoalde Errenteria-Oreretakoa, Itturri Oiartzungoa eta Lezokoak Lezokoa. Ezkortasunaren inertziatik at, urtean zehar asko eta askotarikoak dira herrietako gune txiki horietan erostea errazteko, eta bezeroak saritzeko egiten dituzten ekintza eta egitasmoak. Gehienetan erantzun baikorra izaten duten horiek guztiek, herritarrek badute tokiko dendak gaineko begirunea eta atxikimendua. Izan ere, herriei bizia emateaz gainera, lanpostuak sortzen dituzte establezimendu horiek, eta herrietako ekonomia sarean ezinbesteko osagai dira. Komertziorik gabeko herri bat, herri hila da. Baieztapen latza da aurrekoa. Baina jada nabari daiteke hainbat herritan lehen komertziorako ziren lokalak hutsik ikusteak dakarren iluntasuna.

Lana eta erreleboa

Tokiko komertzioa lanerako aukera bat da. Lau herrietako merkatarien elkarrekin gazteei batez ere esaten diete euren lan proiektuak garatzeko aukera ona dela saltoki bat zabaltzea, zailtasunak zailtasun, egitasmo bideragarri eta erakargarriak sortu eta garatu daitezkeelako tokikotasunetik. Erreleboa behar dute, ordea, urtez luzez herri lanean izan diren hainbat establezimenduk, eta horretan ere gazteen presentzia eta aurrera urratsa eskatzen dute merkataria, ostalari eta zerbitzuetako langileen elkarguneek. ■



Errenteria-Oreretako 182 establezimendu dira Errenkoalde elkarteko bazkide. Imanol Saiz Gomez de Segura

Zero kilometroko kontsumoa, herria bizirik mantentzeko

MERKATARITZA OARSOALDEAN 2025

Ezberdina da tokiko merkataritza bizi-bizi duen herriaren kolorea. Jendearen joan-etorriek betetzen dituzte kaleak, argiek jantzen dute paisaia, dinamikoa egiten dute ingurunea, eta hortik harago, tokiko ekonomiari ezinbesteko ekarpena egiten diote. Online erosketak eta merkataritza gune handien aro beteanean, ez dute bizirautea erraza tokiko establezimenduek. Hala ere, azken

Ez dute lan erraza tokiko saltokiek bizirautea online erosketen eta merkataritza eremuen mehatxupean. Horren aurrean, berrasmatze etengabea ari da Errenkoalde.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

urteetan Errenteriako saltokiek eutsi diote pultsuari, horretarako berrasmatze etengabea ari baitira.

Ingurumari horretan, ezinbesteko aterki dute Errenkoalde Errenteriako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Elkarteak. Gaur-gaurkoz, udalerriko 182 establezimendu biltzen ditu, eta bazkide kopuruari eutsi badio ere, handitu egin nahi dute, jakin badakitelako zenbat eta gehiago izan, orduan eta indar handiagoa egitea izango dutela, Maika Martin Heras elkartearen presidentek adierazi duen moduan: «Ahalmen handiagoa izango dugu antolatu, saretu eta erreferentzialak izateko, ikusgarritasuna ere handiagoa izango delako. Elkarteak, merkatarien bozgorailua da». Horrekin batera, babesa jasotzen dute merkatariek bazkide-tuta, baita egunero jardunean sortzen zaizkien zalan-tzen inguruko laguntza ere.

Elkartearentzat erronka nagusiak identifikatu ditu Martinek, Errenkoalde

deko kide Izaskun Calvo Ugartemendia eta Mikel Salaberria Fernandez de Arroiaberekin batera. Handi-handi-ena gazteengana heltzea, horiek tokiko establezimenduetan kontsumitzen has daitezten. «45 urtetik aurrerakoak etortzen dira, badute herrian erosteko ohitura bestelako moduak erabiltzen badituzte ere batzuetan, baina gazteek mugikorren bidez egiten dituzte gaur egun erosketak guztiak. Askorentzat ez gaude beraien orbitan ere. Gaur-gaurkoz, hori da dugun erronkarik handiena», azaldu du Calvok.

Erronka potoloa, eta hura gainditze-ko hamaika modu eta kanpaina antolatzen ari dira Errenteria-Oreteran. Baina ez dela erraza gaineratu du Salaberriak: «Kontzientzia hartzea da gakoa, azaltzea gazte horiei dena Internet bidez erosiz gero herriko kaleak hutsak geldituko direla. Kontzientzia hori nola sortu da gakoa».

Gazteen beharretara jarri

Bide beretik jo du Martinek, eta hausnarketa jarri du erdi-erdian: «Gazteengandik gertu egon behar dugu, jakin zer eskatzen duten gu haien beharretara egokitzeko. Lan handia dugu egiteko bide horretan». Sinistuta azaldu da, hala ere, ziklo bat dela, eta muga joko duela. «Adin batetik aurrera balioa ematen zaio hurbiltasunari, tratuari... Tokiko saltokietan entzun egiten dugu bezeroa, arreta eta informazioa ematen diogu, zaintzen dugu, mimoz gainera. Kasu askotan ezaguna duzu bezeroa eta badakizu zer nahi duen. Hori ez dute ez online plataformek, ez saltoki handiek ematen. Tratu hori bakarrik tokiko saltokietan aurkituko du bezeroak».

Joan den astean egin zuten gazte eta nerabeei begira antolatutako bigarren bideo lehiaketaren sari banaketa. Herriko saltoki bat aukeratu eta horren gainean bideoa egin behar zuten. «Iniziatibaren bidez saltokiak ezagutzen dituzte, inguruan dutenarekin harremanetan jartzen dira. Garrantzitsua da ezagutza, gero bertan erosiko badute». Beste alderdi batzuekin ere badu kezka Errenkoalde elkarteak, eta horien barruan jarri du digitalizazioa. Calvok



Ostiralean piztu zituen Errenkoaldek Gabonetako argiak Beraunen. HITZA

eta Salaberriak azaldu dute lana ematen diela alderdi horrek saltokiei, baita buruhaustea ere, «asko jarri dira, baina luzea da bidea oraindik, eta hori ere erronka dugu».

Saltokien erradiografia egin du Martinek, eta azken urteetako joera «positiboa» dela udalerrian nabarmendu du. «Garai bateko galera eten da. Egia da arlo batzuetan ixten diren establezimenduek ez dutela erreleborik izaten, baina beste batzuk zabaltzen dira. Due-la urte batzuetako egoerarekin alderatuta, mantentzen ari da merkataritza. Horren atzean, tokiko merkataritza sustatzeko egindako esfortzua dago» esan du Errenkoalderen presidenteak: «Argi dut zer edo zertan eragin dutela kanpaina eta inizatiba sortek, hori da gure eguneroko lana, Errenkoaldek establezimenduak babestea itxi ez ditzaten».

Beste udalerriekin alderatuta, Errenteriaren egoera baikorra dela uste du Errenkoalderen presidenteak, baina adi egotera deitu du: «Hori horrela izaten jarraitzeko garrantzitsua da, ezinbestekoa, herritarrek hemen erostea, herrian. Finean komunitatea gara, eta establezimenduak horren parte gara, komunitatea ere egiten dugu. Merkataritzan gertatzen denak eragina du zerbitzuetan, segurtasunean, dinamizazioan, kale bizitzan, baita ekonomian

ere. Lanpostuak daude atzean, eta herrian kontsumitzen dena, herrian gelditzen da».

Hozte-locker berria

Gertuko tratuak, pertsonen arteko hartu-emanak, berezi egiten du tokiko merkataritza, baina hortik harago bezeroen beharretara moldatzeko etengabe lanean ari da Errenkoalde. Horren adibide da urte berriarekin batera bezeroen eskura jarriko duen hozte-lockerra edo takila. Orain arte bazuten takila, baina ez hotza behar zuten elikagaientzat Salaberriak zehaztu duenez: «Datorren urtearekin batera izango da gaur egun Niessen merkatalgunean dauden takilen lekuan. Elikagaiak jaso ahalko dira bertan, hotza behar duten produktuentzat zein behar ez dutenentzat egokitu izango delako takila sistema berria. Ahalik eta erraztasun gehien ematen saiatzen gara bezeroei. Hori ere badelako bertako establezimenduak bizi-rik mantentzeko modua, eta saltokiak lehiakorrago egiteko era ere bai».

Gabonetan murgilduta, salmenta gehien egiten duten unea dela aitortu dute, «garaiak eta ospatzeko moduak asko aldatu badira ere». Urteko egun guztietara eramanez nahi dute hori, eta herritarrei «herrian bizi daitezela» eskatu diete, «denok egiten dugu komunitatea, baita identitatea ere». ■



Lezokoak elkarteak, jasotakoa lezoarrei itzultzeko prest

Lezokoak Merkatarari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak egitasmo asko abiatu ditu urtean zehar lezoarren fideltasuna saritu, eta erosketak herrian egiteko mezua zabaltzeko.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

LEZO

Lezokoak Merkatarari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak ahalgin berezia egin du aurten herriko denda, komertzio eta zerbitzuen erabiltzaile direnei eskerrak eman, eta euren fideltasunari erantzuna emateko. Hainbat izan dira abiatu dituzten egitasmoak, bi helburu nagusirekin: batetik, lezoarrek herriko establezimenduei dieten leialtasuna saritzea, eta bestetik, herrian kontsumitzeko arrazoiak eta aukerak ematea.

Elkartekideek ondo dakite ez direla ingurune errazean ari lanean: ondoan herri handiak dituzte, komertzio askokoak; hurbilean merkataritza zentro erraldoiak ere badaude; eta azken urteetako Interneteko erosketen aroak ez du etenik. Dena dela, irmo ari da lanean Lezokoak lezoarrek herrian erosketak egin, bertako establezimenduetan kontsumitu, edo herriko zerbitzuak erabil ditzaten. Ez hori bakarrik: herrian egiten diren jarduera askoren

babesle eta laguntzaile da elkarteak, sinisten duelako Lezo bizia nahi bada, euren negoziokoei begiratzear gainera, herriari ere begiratu behar diotela. Herriaren egunerokoan eragile da Lezokoak. Elkarlanean, proiektu askori eutsi dio urtean zehar.

Adibidez, Lezoko Bidea egitasmoak arrakasta berezia izan du. Pasaporte antzeko batean, bertan ziren 20 hutsuneak herriko establezimenduetan kontsumitu ondoren jasotako zigiluekin bete behar zituzten herritarrek, ondoren bonu horiek entregatu eta 1.000 euroko bi sari lortzeko, zozketan: abenduaren 1ean egindako zozketan, Jone Mendigutxia eta Julen Salaberria izan ziren garaile (irudian).

Urte bukaera aldera ere bai, Lezo Bonua kanpaina egin du Lezokoak-ek, udalarekin elkarlanean: 3,5 euroko balioa zuten bonua erosi, eta 5 euroko erosketak egin ahal izan dute bonuen onuradunek azaroan zehar; 1,5 euroko aldea Lezoko Udalak hartu zuen beregain. Gainera, Altxa Burua Lezoren *Gurea erabil dezakezu* kanpainarekin bat egin du Lezokoak-ek, eta herriko haurrek, sakelako telefonoak erabili beharrean, herriko komertzioetakoak baliatu ditzakete.

Paella, xirimiria, agendak, poltsak...

Lezokoak-en kalera begirako jarduerarik jendetsuena maiatzaren 17ko herri paella jatea izan zen: 400 bat lagun bildu zituen Karlos Saldise plazan. Horretara joateko txartelak herriko establezimenduetan kontsumitzeagatik gonbidapen bidez lortu zituzten horiek guztiak, eta gainera, bazkarian bertan zozketak egin ziren.

Bestalde, urrian erosleentzako artean agenda bereziak banatu ditu elkarteak, baita erosketak egiteko poltsak ere. Aterki hori deigarriak ere egin ditu Lezokoak-ek Xirimiri egitasmoarekin, eta egun euritsueta erne ibiltzen ez direnei uzten dizkie, gerora horiek hartu diren establezimenduetara itzultzeko.

Erne: Gabonetako zozketa bereziak egingo dituzte herriko 40 bat establezimendutan. Horietako bakoitzean 125 euro inguruko balioa duen saskia presatatu dute zozkatzeko. ■



MIRIAM GOIKOETXEA ZAMORA

SAHATSA-AIZPEA TABERNAK

«Lezon erosketak egin eta kontsumitzea denentzat da onuragarria»

Lezon erosketak egin eta kontsumitzea denentzat da onuragarria, herriari bizia ematen diolako horrek. Herrian gera dadila dirua, nahiz eta jakin askotan zaila izaten dela hori. Gu ahalegin horretan ari gara, ahalik eta zerbitzu onena ematen. Hala ere, zaila da herrian jendea gelditzea inguruan herri handi eta merkataritza gune handiak daudelako. Guk behintzat hemen lanean jarraitzeko apustua egin dugu: Sahatsa tabernatik Aizpeara lekualdatuko dugu gure jarduna, fase berri bat hasiko dugu.

Lezokoak elkarteko kide gara. Babesa dugu hor, taldean lan egiten da, eta iritziak elkartrukatzeko aukera dugu. Bertatik badakigu nor dabilen herriaren alde lanean. Saiatzen gara bertatik gauzak egiten, lezoarrek herriaren kontsumitzen jarraitzeko.



NURIA TEJEDOR CORRAL

TTANTTA BITXIDENDA

«Jendeak ez al du altxa behar tokiko merkatarien alde? Ahanzturan gaudela uste dut»

Zaila da herritarrek Lezon erosketak egitea. Bada esaten duenik aukera gutxi dagoela hemen. Nik behintzat Errenteriako edo merkataritza guneetako edozein bitxidendak baino produktu gehiago ditut salgai, merkeago gainera. Gainera, jendeak ez daki zenbateko igoera izan duen urrearen prezioak, adibidez.

Herrian kontsumitzen duten lezoarrak ditut bezero. Baina badira Interneten erosketak egin, eta arazoren bat dutenean nigana etortzen direnak soluzio merke bila. Aldaketa behar dugu herriko komertzioan, bestela hutsa geldituko da Lezo. Gainera, autonomo gara, horrek dakartzan buruhauste guztiekin: jendeak ez al du mugitu behar gure alde? Ez al du altxa behar tokiko merkatarien alde? Ahanzturan gaudela uste dut.



EDURNE RIAÑO AGIRRE

PANPOX ILE APAINDEGIA

«Herritarrek imajina dezatela zer litzatekeen Lezo tokiko saltoki edo zerbitzurik gabe...»

Ez dakit erabat kontziente garen herrietako establezimenduek duten garrantziaz. Beti arlo ekonomikotik begiratzen ditugu gauzak, ongi dago hori; baina herrian kontsumitzen ez bada, herria hiltzen da. Agian herritarrek ez dute beti herrian kontsumitu behar, baina keinu txikiak, noizean behinekoak agian, egin daitezke. Lotsarik gabe. Herriko komertzioa bizirik mantentzeko ez dira erabateko konpromisoak behar nire ustez, tarteka ere hurbil daitezke lezoarrak gugana.

Keinu horiek, gainera, ez dira bakarrik guganakoak, dendari edo establezimenduak ditugunon aldekoak. Herriaren aldekoak dira. Herritarrek imajina dezatela zer litzatekeen Lezo tokiko saltoki edo zerbitzurik gabe... Hilda legoke herria.

LEZOKO UDAL
LUDOTEKA
URRIAK 1 - MAIATZAK 29

IZEN-EMATEA IREKITA

- Udaleko Euskara-Kultura Sailaren bulegoetan
- Ludotekan zerbitzu orduetan
- On line:
<https://lezo.eus/ludoteka>

Informazio gehiago: www.lezo.eus

Lezo Udalaren Logotipoa: Lezo Udalaren Logotipoa
Ekar zainduz Lezo

Egunero, kalerako atea zabaldu eta kalean ere etxea sentitzea posible egiten dugun guztiontzat

«Beno, Maite, banoa lanera; 09:00ak dira jada eta bestela larri ibiliko naiz. Aurretik, amonak Maritxuri eskatutakoa utziko diot etxean; Felipenetik ere pasatu nahi dut, ogia jasotzera eta belauna nola duen galdetzeraz. Itxarori eskatutako liburua noiz jaso-ko dudan ere galdetu behar diot, eta Anari antxuak enkargatu...». Herria zaintzea, herria bizitzea da.

Iturriko emariak herriaren egarriari erantzuten dio; lehor den lurra etengabeko isuri isil batez zaintzen du, gertu egonez eta adi, herriaren taupada entzuten duenaren umiltasunez. Hala dira Oiartzungo dendak ere: herria ureztatzen duten iturri txikiak, eguneroko bizitzaren zaindari, auzokoen behar eta kezka bere gain hartzen dituztenak.

Tokiko komertziorik gabeko herria ez da herria. Dendak dira eguneroko pausaleku, erreferentzia, eta eurite amaigabeetan, maiz aterpe eta babes. Dendariak herritar bakoitzaren ize-na dakite, zer duen gustuko eta zer saihesten duen; enkargu bakoitzaren atzean izen bat jartzen dute, izate bat, norbaiten istorio zati bat. Hori baita komunitatea: elkar ikusi, elkar ezagutu eta elkar sostengatzea.

Herria, dendarik gabe, hutsagoa da. Kolore gabea. Soinu gabea. Arnasarik gabea.

Oiartzunen egoera larria da. Ingu-ruetan denda erraldoiak ugaltu dira eta ikusezin den online munduak irtenbide zaila duen amaraun batean harrapatu gaitu. Azkar eta merke: horixe dute euren mezua. Ez dute herria zaintzen, ez dute Maialen ezagutzen, ez Beñat, ezta Gexan ere. Ez dakite Aitorrek bigarren semea izan duenik, ez eta zer behar duen herriko batek edo besteak bizitzako une jakin batean. Guztiei modu orokorrean eskaintza interesgarriena jartzen diete aurrean; ez dute galdetzen norentzat den, eta ez zaie axola eskaintza hori benetan egokia den ala ez.

Iturrin, zu bezala, oiartzuarrak gara. Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez. Gure herria maite dugu eta hala jarraitu nahi dugu: zainduz, partekatuz, elkarbiziz, eta batez ere, komunitate gisa elkarri eutsiz. Izan ere, komunitatea da herri baten oinarritzeko indarra: biztanleak lotzen dituen hari fina, gure herria bizirik eta sendo mantentzen duena.

Horregatik esaten dugu: etorri herrira; edo hemen diogun bezala, heldu herrira. Heldu herriari, heldu eskutik, eta gerturatu bihotzera. Hori baita Oiartzun bizitzeko eta Oiartzun zaintzeko modu bakarra: herria biziz, herrian biziz eta herria elikatuz. Heldu herrira eta edan Iturritik! ■

Iturriko kide egin nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan:
Tel. **618 18 80 09**
emaila: info@nikoiartzunen.eus
info@iturri.eus



PABLO MIRANDA IGLESIAS

BLOK ERAMATEKO JANARIA

«Egunerokotasunean bezeroekin egotea eta bakoitzari behar duen hori ematea da giltza»

Oiartzunen komertzio txiki bat edukitzeak uste dut herria hezurtzen duela. Tokiko merkataritza sustatu behar da, eta, guk, esaterako, tokiko produktu asko erabiltzen ditugu hezurtze ahalegin horretan. Guretzat oso garrantzitsua da komertzio eredu horri heltzea eta bere horretan mantentzea. Berebiziko garrantzia du horrek.

Oiartzunek inguruan berde asko du, belar asko dago, eta, ondorioz, baratze asko daude. Hortaz, herrian horrenbeste baratze izatea abantaila da gurea bezalako establezimendu bantentzat, bertako jaki asko erabiltzen ditugulako egunerokotasunean egiten ditugu plater eta menuetan. Kozinatzin dugun horretan eragin handia dauka Oiartzunek, inolako zalantzarik gabe.

Uste dut tokiko komertzioetan erostearen gainean gero eta kontzientzia handiagoa dagoela, baita Oiartzunen bertan ere. Are, hemen bereziki esango nuke. Hala ere hemen denetarik dago, inguruan ere saltoki handiak daude, baina erdiguneko zein herriko jendeak bertako merkataritza babesten du.

Egia da herri txikietan negozioak edo saltokiak mantentzea ez dela erraza, ezin baita lehiatu saltoki handien aurka. Alabaina, egunerokotasunean bezeroekin egotea eta bezero bakoitzari behar duen hori ematea da tokiko merkataritzaren giltza.



iturri
Oiartzungo Merkatarien Elkarte

Heldu herrira!
#iturrioiartzun



• Estanku eta loteri denda Doneztebe, 11.	943 49 16 11	Bai
• Kinkila mertzeria Euskal Herria plaza, 3.	943 49 42 46	Bai
• Garbiñe estetika zentroa Rafael Pikabea hiribidea, 1.	943 49 39 90 / 688 89 22 92	
• Mapfre Oiartzun Mendiburu kalea 4, behe.	943 49 44 14	
• Arkupe hortz klinika Kontzejupe plaza, 7.	943 57 39 23	
• Itziar edergintza Santusene kalea 5, behe.	943 49 39 81 / 680 31 00 07	
• Esnatu altzariak eta elektrogailuak Santusene kalea, 5 behe.	943 49 19 98 / 943 49 19 98	Bai
• Urrats paper denda Mendiburu kalea, 12.	943 26 07 73 / 747 40 50 16	Bai
• Nerea Jauregui ile apaindegia Euskal Herria plaza, 5.	943 01 60 74	
• Elordi janari denda Elorrondo kalea, 10.	652 73 10 25	Bai
• Lizar harategia-urdaitegia Elorrondo kalea, 18.	943 49 19 72	Bai
• Izaro arrandegia Arraskuelarre kalea.	943 49 51 80	Bai
• Baobab arropa eta osagarriak Euskal Herria plaza, 7.	943 26 04 87 / 943 26 04 87	Bai
• Pausoz-Pauso klinika podologikoa Donibane kalea, 3 Atzelaldea.	943 26 10 18	
• Urkola optika-entzumen zentroa Landetxe plaza, 4.	943 49 31 74 / 943 49 31 74	Bai

• Zubillaga gestoria Aialde kalea, 3.	943 49 18 92	
• El Paso arropa eta osagarriak Poligono Talaia, 6.	943 49 38 46 / 943 49 38 46	Bai
• Iraitz harategia Mendiburu kalea, 12.	943 24 99 83	Bai
• Eroski City oiartzuarra Olalde kalea, 4-5.	943 26 03 45 / 634 43 60 40	Bai
• Marisol janari denda Mendiburu kalea, 11.	943 49 01 13	Bai
• Sasi lore denda Manuel Lekuona Hiribidea, 2.	943 49 34 94	
• K. Antunez botika Doneztebe, 5.	943 49 03 52 / 688 76 30 72	Bai
• Pacheco Izeta lore denda Mamut merkatalgunea.	943 49 18 68 / 652 76 57 19	
• Neuk artisau diseinuak Donibane kalea, 1.	618 58 41 38	Bai
• Jan Goxo janari prestatuak Martintxo kalea 1.	668 52 38 40	Bai
• Kutixao belar denda Aialde kalea 1.	688 65 37 75	Bai
• Mariana-luliana janari denda Arraskularre kalea 18.	943 53 14 59	Bai
• Orea okindegia Kontzejupe plaza 1.	943 94 06 57 / 623 21 60 19	Bai
• Aguirrezabalaga botika Arraskuelarre kalea.	943 49 14 95 / 644 93 22 55	Bai
• Biok eramateko janaria Putxutxoerreka kalea, 2.	634 67 26 41	Bai

IGO GURE KANALETARA

Oarso Bidasoko HITZak Whatsapp eta Telegram kanalak ditu martxan. Harpidetu eta albiste guztiak jaso egunean!

Telegramera harpidetzeko:
@obhitza edo t.me/obhitza



Whatsappera harpidetzeko:
<https://whatsapp.com/channel/0029Vaj-JZjd3bbV9wchLBC2q>



• OARSO BIDASOKO •
HITZA



Mikel Del Val

«Eguberriak komertzioentzat oso garrantzitsuak dira»

Eguberriak gainean dira, eta ilusioz iritsiko dira Laurak Batera. Aurten Gabonetako argietan jarri dute indar handiena, eta udalarekin sinatutako hitzarmenari balioa eman dio Mari Carmen Mogilnicki elkarteko presidentek.

Nola datoz Eguberriak Pasaiara eta Laurak Batera?

Ilusio handiarekin datoz. Aurten ere Eguberrietako argiak erosi ditugu eta oso politikak geratu dira. Argi horiek leku estrategikotan kokatu ditugu. Aurten ere saskiak zozkatuko ditugu Laurak Bateko komertzio guztietan, gure bezeroei banatzeko. Eguberrietako kanpaina bukatzeko, sei errege opil zozkatuko ditugu, hiru Antxon eta beste hiru Trintxerpen. Antxoko Erregeen kabalgata ere babesten jarraituko dugu aurten. 20 urte daramatzagu bertan murgilduta. Eguberriak komertzioentzat oso garrantzitsuak dira, puntako hilabetea

MARI CARMEN MOGILNICKI LAURAK BAT

MIKEL DEL VAL GARCIA

da guretzat. Jendea animatzen dugu garai honetan ere gugana gerturatzeko, ez dira damutuko.

Berritasunen bat dago aurten?

Uste dugu garrantzitsuena kaleen iluminazioa dela, eta gure esfortzu ekonomiko handiena bertara bideratu dugu. Zailtasun handiak izan ditugu argiekin: Donostiarekin fatxadak konpartitzen ditugu eta ez digute gehiegi lagundu. Berritasun nabarmenena lanketa on bat egitea izan da, eta uste dugu jendeari gustatu zaiola.

Argiak instalatuta eta funtzionamen-

duan daude jada. Horrek komertzioen ingurua eta ikusgarritasuna hobetzen laguntzen du, ezta?

Hala da. Nahi duguna da herriak argitasuna izatea. Antxon zentratuta, hurrengo urtera begira Gure Zumardia kondizio onetan apaindu nahi dugu. Obrekin ezin dugu ezer egin.

Argiekin ikusi da Laurak Bat eta Pasaiako Udala norabide berean doazela. Hori ere garrantzitsua da bi aldeentzat, ezta?

Udalarekin hitzarmen bat sinatu genuen, horrelako iniziatibetan Laurak Baten eskutik joateko. Udalak laguntza ekonomiko handia ematen digu gure ametsak betetzeko. Aurten, gainera, beste bi informazio pantaila jarri ditugu, eta lau barrutietara iritsi gara jada. Datorren urtean bizitza eman nahi diegu pantaila horiei.

2026a gainean da, eta udala banatzen hasi da jada datorren urteko egutegiak. Udalarekin batera lehiaketa bat abiatu zenuten, azala erabakitzeke.

Jende gehiagok parte hartzea nahiko nuke. Gure asmoa zen Pasaiako bizitza irudikatzea, jendearen egunerokoa islatuz. Asko gustatu zaigu, eta guk ere orrialde bat dugu egutegiaren barruan, komertzioei begirakoa dena.

Datorren urtera begira, daukagun ideietako bat da herriko paretak apaintzea. Nahi duguna da artistek horiek margotzea, Trintxerpeko Ziriza Etxekoaren antzera. Horren inguruko lehiaketa bat egin nahiko genuke, hutsik dauden paretak betetzeko. Aurten argazkiak izan dira, eta datorren urtera begira paretak margotu nahi ditugu, herria apaintzeko.

2025a bukatzean da. Nolako izan da Laurak Batentzat?

Oso urte ona izan da, ekintza asko egin ditugu. Udalarekin sinatutako hitzarmena funtsezkoa izan da guretzat. Aurten bonu kanpaina bat izan dugu. Lehen aldundiak sustatzen zuen, eta orain udalerrikoa da. Bonuen kanpainarako hilabete estrategikoak aukeratu ditugu, salmentak baxuagoak direnean, eta eragina izan du. Hilabete honetan ere Bicicargo-rekin hasiko gara. Laurak Bat ikusgarri egingo du, lau barrutietan mugituko baikara. ■

Herrian erosi, eta bizikleta bidez eroso jaso

Eguberrietan banaketa zerbitzu berezia izango du Laurak Batek: Bicingo. Edozein barrutitako dendetan erosketak egin, eta aukeratzen den gunean utziko dituzte.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

PASAIA

Laurak Bateko kide diren dendetan erosketak egin, eta erosketak hori eroso etxe ondoan jaso. Nola? Bizikleta baten laguntzarekin. Hau da: San Pedron liburu sorta bat erosi, eta Antxorako bidea zama horrekin egin beharrean, bizikleta bidez bizilekuaren alboan jaso. Edo Donibanen arropa elegantea erosi, eta Trintxerperako bidea poltsa askorekin egin beharrean, beste batek etxe ondoan eramatea. Bada *beste* hori Bicingo zerbitzua da. Laurak Bat Pasaia Merkataria, Ostalari eta Zerbitzu Elkarteak hilaren 12tik (gaurtik) 2026ko urtarriaren 5era arte Bicingo zerbitzua eskainiko die lau barrutietako Laurak Baten barruko establezimenduetan kontsumitu, eta erositako hori etxe ondoan eroso jaso nahi dutenentzat. Nola ez, autoa erabili gabe.

«Egitasmoaren helburu nagusia argia da: Eguberrietako erosketak Pasaian gelditu daitezela», esan du Laurak Batek: «Herriko komertzioaren alde apustu egitea da egunero-egunero tokiko ekonomia bizirik mantentzen duten horiek babestea, horien nortasunari eutsiz eta ematen duten zerbitzua aitortuz». Elkarteak badaki zaila dela herritarrek lau barrutietako establezimenduetan kontsumitzea, baina ahalegin bizian da herriari bizia, ekonomia garapena eta lanpostuak ematen dizkion sektoreari duen garrantzia emateko lanean.

Ahalegin hori, baina, ez du hutsetik egiten: Pasaian askotariko komertzio, ostalaritza gunek eta zerbitzu aukera dago. Kalitatezkoa eta prezioetan lehiakorra. Hala, Bicingorekin ahalegin horri beste forma bat eman nahi dio Eguberrietan Laurak batek, herrita-

rei erraztuz barruti ezberdinetan erosketak egitea. «Berrikuntzak eta tradizioak badute elkarrekin bizitza, eta tokiko ekonomia indartzeko bidean ezinbesteko osagaiak dira».

Laurak Batek hainbat bidaide izan ditu Bicingo zerbitzua abiatu ahal izateko. Horien artean dira Pasaia Udala, Don Bosco Lanbide Hezikuntzarako Institutua eta Gurpil Artea: «Elkarlanetik, iraunkortasunaren, ingurumenaren, hurbiltasunaren eta tokiko komertzioaren bultzadaren aldeko egitasmoa da, salmentetan hain garrantzitsua den garai honi erantzuna emateko».

Nola?

Bizikleta bidezko banaketa zerbitzua baliatzea erraza da. Lehenik eta behin, erosketak egin ondoren bezeroak adierazi behar du erositako hori nora eramatea nahi den. Horretarako, lau barrutietan jasotze-guneak egokitu ditu Laurak Batek: Antxon, Mapfre



aseguru establezimenduan eta Pinturas Nerean; Donibanen, Paris Berri tabernan; San Pedron, Hiru T'ardi tabernan; eta Trintxerpen, Suain dekorazio dendan eta Trintxerpe etxeko tresna dendan. Erositakoak 24 orduan baino gutxiagoan iritsiko dira erosketak-gunetik jasotze-gunera, astelehenetik ostiralera 17:00ak eta 19:00ak artean (jaiegunetan izan ezik, ez da martxan izango zerbitzua); bezeroak establezimendu horiek zabalik diren bitartean joan daitezke erositakoa jasotzera. Bi euroko prezioa du zerbitzuak.

«Aste hauetan zehar pasaitarrek bizikleta gure kaleetatik banaketak egiten ikusten dutenean, nahiko gurek pentsatzea ekintza txikiak gure herriaren egunerokoan eragin baikorra izan dezaketela, zentzu guztietan», adierazi du Laurak Batek.

Bicingo bizikleta banaketa zerbitzuaren gaineko, edo Laurak Batek buruzko informazio gehiago behar duenak egin dezala harremana haiekin 685 75 57 86 telefono zenbakira deituz, edo info@laurakbat.com posta elektronikora mezua idatziz. ■

OARSO BIDASOKO HITZAren otarrea!


LEZOKOAK
Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte


itturri
Oartzungo Merkatarien Elkarte

HITZAkide
izateak
abantailak
dituelako

Bertako
komertzioetan
kontsumitzeak
abantailak
dituelako

e


Laurak Bat
Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte

Errenkoalde, Lezokoak,
Laurak Bat eta Itturriko
komertzioetan kontsumitzeko
1.000 euro saritan!

Sariak:
400 euroko bonua
(HITZAkideentzako saria)

200 euroko bonua
(HITZAkideentzako saria)

100 euroko 4 bonu
(parte hartzaile guztien artean)



labur.eus/otarrea2025

Parte hartzeko epea: abenduaren 15era arte

• OARSO BIDASOKO •

HITZA